



ARRISKU PENALAK ETA EROSKERIA SAHIESTEKO POLITIKA

ALDAKETAK KONTROLATZEA

BERTSIOA – ATALAK	IRUZKINAK – DATA
V.0.-hasierako dokumentua	Indarrean 2018-09-19tik
V.1.-aldaketa txikiakformatuan	2020-10-22koOCP-ak onartuta
V.2.-edukia (orokorra) egokitzea eta eguneratzea	OB-ak prestatua, gainbegiratua eta onartua 2021-11-26koaktaneta 03/2022 administrazio-organon

AURKIBIDEA

1.	XEDEA ETA HELBURUA.....	4
2.	IRISMENA.....	4
3.	HELBURUAK.....	4
4.	INDARREAN SARTZEA, INDARRALDIA, KOMUNIKAZIOA ETA BERRIKUSPENA	6

1. XEDEA ETA HELBURUA

Klemark SAren (aurrerantzean, Klemark) gobernu-organismoak bere gain hartzen du erakundeak indarrean dagoen legeria, barne-araudia eta printzipio eta balio etikoak betetzeko konpromisoa, eta hura bultzatzen du; horretarako, Compliance Penal eta Eroskeria Kudeatzeko Sistema Integrala ezartzeko, garatzeko, mantentzeko eta etengabe hobetzeko behar diren baliabideak emango ditu. Sistema horren helburua, oro har, edozer arriskupenal prebenitzea, antzematea eta hari erantzutea izango da, eta, zehazki, negozio, harreman eta prozesu korporatibo mota ezberdinekin lotutako eroskeriaren arloko arriskupenalak.

Politika honek bat egiten du prebentziozko printzipiozuzendariekin eta Klemarken Kode Etikoan jasotako derrigorrezko jokabideak eta jokabidearen balio eta arau etikoak deskribatzen dituen katalogoarekin. Balio horiek dira, esaterako, gardentasuna, legea betetzea, pertsonak eta beren duintasuna errespetatzea, giza eskubideak eta askatasun publikoak errespetatzea, zintzotasuna, fede ona, jokabide-osotasuna eta sen ona.

2. IRISMENA

Arrisku Penalak eta Eroskeria Saihesteko Politika Integratu hau Klemarken kide guztiei aplikatzen zaie, erakundearen barruan betetzen duten kargua edo lanpostua, harreman mota eta nazio-mailan duten kokapen geografikoa alde batera utzita.

Bestalde, Politika hura luzatuko zaie hirugarrenekin, negozio-kideekin, erakundearen izenean jardun edo ekintzak egiten dituzten pertsonekin, atzerriko eskumendeko enprekin eta partaidetza-sozietateekin izaten diren harremanei, eginbide-prozeduretan ezarritakoaren arabera, erakundeari arrisku kritiko edo larririkar diezaioketen neurrian. Politika hori ezagutu eta beren jardura profesionalaren esparruan aplikatu beharko dute guztiek.

Klemarken kontrolpean dauden sozietateen edo erakundeen kasuan, Politika hura aplikatuko da Compliance Penal eta Eroskeria Kudeatzeko Sistema Integralera atxikiz edo harekin bat etorrituz.

3. HELBURUAK

Politika honen helburu nagusiak dira:

- ❖ Kode Etikoaren irizpideei jarraitzea. Kode horrek honako gauza hauek jasotzen ditu: enpresa-etikaren printzipioekineta jarduketa-eremu guztietako gardentasunarekin Klemarkek duen konpromisoa eta lan egitean Klemarken profesional guztiek bete behar dituzten jokamolde etikoak eta arduratsuak nahiz horiekin ez betetzearen ondorioak.
- ❖ Kulturaetikoaren ezarpen eta garapen efektiboa eta Klemarken kide denek legea betetzea, lanpostua eta funtzioaknon betetzen dituzten alde batera utzita.
- ❖ Edozer delitu-egintza, legez kanpoko egintza edo Kode Etikoaren balioen eta printzipioen aurka doan egintza ez onartzea eta berariaz debekatzea, eroskeria barne; Klemarken balio etikoek barne- eta kanpo-harremanak zuzentzen dituztela bermatzeko xedez. Horretarako, jarduketa eraginkorra egingo da, zerbitzuguztietan bikaintasuna eta kalitate handia betez.
- ❖ Kide anitzeko organo betearazle bat izendatzea delituen prebentziorako, eroskeria barne; hura hornitzea beren zeregina egiteko nahikoa baliabide materialekin eta giza baliabideekin eta etengabeko prestakuntzasustatzea, kargua betetzean buruzagitza, autonomia eta independentzia ziurtatzeko xedez, gobernu-organoren mendeko zuzena izaniketa hark sarbide zuzena edukirik.
- ❖ Klemarko kideei etengabe komunikatzea, prestatzea, sentsibilizatzea eta kontzientziaztea eta, aldizka, eskatzen duten negozio-kideei eta bestelako interes taldeei ere bai, Compliance Penaleko Kudeaketa Sistema Integralaren edukiaren, baldintzen eta izaeraren inguruan, gure jarduerak betetzean eraginkortasunik handiena lortzeko eta kultura etikoa eta legea betetzeko kulturagaratzeko.
- ❖ Erakundearen kideek derrigorrez informatu beharra arrisku penalik edo eroskeria-arriskurik ezar lezakeen arauz kontrako edozer egintza edo jokabideri buruz.

Ilido beretik, egoera horren berri duten hirugarrenek zuzenean jakinarazi behar diote erakundeari. Horretarako, Kanal Etikoa eta dagokion funtzionamenduko barne-araudia sortu dira. Horiekin batera, ikerketa- eta erantzute-prozedura bat egin da, Compliance Penala eta Eroskeria Kudeatzeko Sistema Integralaren gorabeherekin edo ez-betetzeekin lotuta jasotako komunikazioen kudeaketa, tratamendua eta izapidetzea arautzen

dituena, bildutako funtsezko eskubideak errespetatzen direla bermatzeko, bereziki, salatzailearen edo fede oneko informatzailearen konfidentziasuna, anonimata eta errepresaliarikeza.

- ❖ Compliance penala eta eroskeria kudeatzeko sistema garatu eta monitorizatzen duten prozedurak ezartzea, horiek eraginkortasunez kudeatzeko xedez, ezarpen efektiboaren maila, bat ez etortzeak eta ekintza zuzentzaileak ebaluatzeko adierazle egokiak ezarriz berrikuspen- eta hobekuntza-prozesuetengabe baten barruan.
- ❖ Diziplinazko neurri egokiak hartzea Compliance Penala eta Eroskeria Kudeatzeko Sistema Integralean gerta daitezkeen arriskuen eta ez-betetzeen aurrean, eta legez kanpoko edo delituzko edo zer jokabideren aurrean ere bai. Horiek oso arau- hauste larritzat joko dira kontratuaren fede ona urratzeagatik. Horrek guztiak ez die kalterik eragingo gainerako lege- edo kontratu-betekizunei, jokamolde horietatik erator litezkeenei.

4. INDARREAN SARTZEA, INDARRALDIA, KOMUNIKAZIOA ETA BERRIKUSPENA

Politika hori indarrean sartuko da dokumentu hau onartu, aldatu edo eguneratzen den egun berean.

Argitaratu eta hedatuko da, ezagutzera emate aldera. Gainera, korporazioaren webean eskuragarrieta kontsultagarri gongo da.

Klemarkek ohikoan berrikusiko du edukia, dokumentu-informazioko sisteman ezarritako maiztasunarekin. Ez ohikoan, hura egokitzeko edo berehala eguneratzeko legezko, antolamenduko edo beste nolako tasun bateko baldintza garrantzitsuak gertatzen direnean.